

LINO AKESOLO

I. BIZITZA ETA LANA

1. Bizitzako zertzelada batzuk

Lino Akesoloren bizitzeari buruzko zertzeladak argitara barri dan *Idazlan guztiak* ale biko liburua *Sarreran* aurkitu daitez irakurleak (L. AKESOLO, *Idazlan guztiak*, Zornotza 1989). Emen, beraz, bearrezkoenak aipatuko ditugu.

Arratiako Diman (Bizkaian) jaioa dogu 1911.IV.7an. Bere auzoan, Oban, egin ebazan leenengo ikasketak. 1921-1926 bitartean Larrako (Zornotza) Karmeldarren ikastetxean bigarren mailako ikasketak ekin ondoren, Karmeldarren artean eskeiñi eban bere profesia 1927ean. Gero, bigarren mailako ikasketak amaitu eta filosofi eta teologi ikasteari lotu jakon Markiñan, Gasteizen eta Begoñako Karmelon. Emen mezakotu zan, 1923.VII.8an; ikasketak baiña urrengo urtean burutu ebazan. Orduan, Zornotzako Karmeldarren ikastetxera aldatu zan irakasle eta *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari.

Gudaldian, gudarien kapellau. 1937-1940 bitartean espetxe zigorra jasan eban beste abade eta fraile askoren artean, Karmelon, Nanklares'en, Palencia'ko Dueñas'en, Sevilla'ko Carmona'n.

Urrengo urteetan, Euzkadi izaniko lurraldeetan egotea Gobernuak galerazota eukanaz, zenbait komentutan bizi izan zan. 1948ean teologi ikasleen irakasle izendatua izanik, Begoñako Karmelon

izan eban egotaldirik luzeena, 1948-1969. 1963ean Fuskaltzain Oso izendatua, baiña beingoan uko egin eutson, barruko egoera atsegin izan ez ta. Arrezkero Urgazletzat dauke. 1964ean Bizkaiko Elizbarrutiko Liturgi Batzordekoa, eta 1968ean Elizbarruti arteako Liturgi euskeratzaile Taldekoa. 1969ean Donostiko Karmeldarrak nagusi aukeratu eben. Emen egoala, 1970ean, Kardaberaz Bazkunako kidea. Markiñako Karmeldarren nagusi 1972ean. Begoñara bihurtu zan 1975ean, *Diccionario de Autoridades del Euskera* liburuan lan egiteko. 1978ean Euskerazaintzak bere lendakari aukeratu eban. Begoñan jarraitzen dau lan etengabeen.

2. Lanak

Akesoloren lanen titulu guztiak argitaratuta dagoz, J. Urkizari esker: *Karmelen* (1989-1, 26-45), eta aipatutako *Idazlan guzttak* liburuan. Guk emen gogoragarrienak eta lan-saillak azpimarratzea naiko dogu.

2.1. *Euskeraren Iztegi Adibideduna* (Diccionario de Autoridades del Euskera). Bederatzi ale, 1976-1989 bitartean argitaratuak. Iztegi orren leenengo orrian olan agertu ez arren, Akesolo da egillea: berak zuzendu, berea materialik geiena, bere eskutik igaro erantzukizun osoz iztegia. Manuel de la Sota'k Azkueren Iztegia osotzeko asmotan bilduta eukan itz-altxorra izan dan iztegi onen azia. Or izan dira lagun gero P. Lafitte, J. Lasa, Justo M. Mokoroa, Justo Garate, Damaso Intza, Gabirel Manterola, Jaime Kerexeta, eta, azken lau aleetarako, Luis Ortega koordinatzailllea. Aurreko iztegi eta idazle zaarrak ikertu dira barriro, eta erniko altxorretik be aal izan dana jaso.

2.2. *Gazteleraazko idazkiak*. Batez be alemaneratik itzuli izan dau, baiña baita frantsesetik eta latinetik be. Itzulpen lan au ia osorik 1952-1962 bitartean burutu eban: zortzi liburu, geienak mardulak.

Euskeratik be itzuli dau gaztelera: Bernard D'Echepare'ren *Linguae Vasconum Primitiae*.

2.3. *Euskerazko Itzulpenak*. Santa Teresa'ren *Camino de Perfección* (On-bidea), S. Onaindiagaz alkar-lanean (teologi ikasle

zirala asitako lana, gero amaitu eta liburu moduan argitaratua). *Salmoak*. Iratzeder'en lana bizkaieraz eta egokitua. MANUEL FUENTES, *Jaungoikoak beretzat gura nau*. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra. DOMINGO FERNANDEZ MENDIOLA, *Aita Aureliano Karmeldarra*.

2.4. *Euskal Idazle zaarren argitalpenak*. Bernat D'Echepare'ren *Linguae Vasconum Primitiae*. Joannes Etcheberri'ren *Noelak eta kanta espiritual berriak*. Bernard Gazteluzar'en *Eguia Catolicac*. Gregoria Arrueren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza*.

2.5. *Beste lan batzuk*. Lan garrantzitsua Liturgi liburuak itzultzen burutu dau Eliz-barruti arteko Liturgi itzultzaile Taldean. Euskaltzaindiaren *Gramatika*. *Lehen Urratsak*. (Ikusi beste lan batzuk aipatutako *Idazlan guztiak* liburuan).

2.6. *Idazlan guztiak*. Ale bitan. Zornotza 1989. J. Urkizak gertatutako idatzi guztien bilduma. Ez dira sartzen aurreko puntuetan esandakoak: itzulpenak, alkarlanak, aleetan argitaratuak. 300 artikulua baiño geiago. Argitaratzaileak sail oneetan banatzen ditu egoki: A. Euskera, Literatura, Kritika (145 artikulua). B. Euskera eta Biblia (11 artikulua). C. Euskal testodun idazlanak (16 artikulua). D. Kondaira eta biografi-artikulu eta oarrak (75 artikulua). E. Liburuen barri emoteak (45 artikulua).

3. Lanaren bereizgarri batzuk

Kondaira eta euskera dira L. Akesolok landutako arloak. Geien baten euskal kulturari dagokion kondaira. Bere lanbidea, urte luzeetan irakasle zala, kondaira gaiak ikertu eta azaltzea izan eban. Barruko deia eta doaiak be kondairara daroe eta izkuntza eta testo kritikara. Euskera inguruko gaiak eta euskal kultura gaztetarik asi zan lantzen. Baiña arlo berezi mugatu ori ez zan izan bere lanbidea, ezta berak bein ta betiko beretzat esitako arlo bakarra. Irakasletzan elizkondaira orokorra eta inguruko beste gai batzuk landu zituan. Batera, urte luzeetako aalegin gogorra liburuak itzultzen izan eban: kondaira eta saioak, teologia eta filosofia. Bere adimena ikuspegi zabal orretan landu izan dau, eta beraz, euskal kulturako gaiak kultura orizonte orretan kokatzen ditu.

Berezko barru eskakizunak eroan dau Akesolo idatzietan zeaztasuna billatzera. Datoak ondo ikusi, ikertu. Eta arrazoiketa aurre-eritzi bakoa, ikuspegi zabalaren barruan eginen. Ortik, bere lanaren jakintza seriotasuna. Oñarri bako baieztapenak, asmakeriak, grñazko estukeriak zentzun kontrako eta arbuigarriak jakoz.

Zeaztasun bardña agiri da itzulpenetan. Itzulpenak ain zuzen, izkuntzat ezagutzeaz ganera, pentsakizuna arrapatzeko adimen doai berezia eskatzen dau. J.M. Setien Gotzaiñak idatzirikiko pastoral eskutitz bat euskeratu ei eban bein Akesolok; eta Setien Jaunak Bilbon aurkezpena egitean, euskerazkoa gaztelerazko jatorra baiño argiago egoala esan ei eban.

Orain, dana batera ikustean, uste genduan baiño zabaltasun andiagoa dau Akesoloren lanak. Zabaltasun eskerga be esan geinkena arrimenez. Baiña bere meriturik beiña sendotasunean datza, lanaren seriotasunean. Jakingarri asko ta asko aurkitu daikuguz bere idazkietan. Bere prosa euskera ikasteko eskola dogu. Baiña danaren ganetik, bai ikerlanetan eta bai zabalpen-idazkietan, darabillan jakintza-senean dogu maisu.

4. Idazkera

Akesoloren prosa argia da, idazkiaren egitura osoan eta esaldiz esaldiko joskeran. Esaldi luzeagoak be berezkotasunez erakusten dabe euren esanaia. Orretarako, jakiña zaintzen dituala euskal joskera arauak (obeto, euskal sintaxi-jokera), baiña euren jopu izan barik, arau ezagunak eta ikertu bakoak berezko senez menperatuz.

Bere prosaren ibillera astitsu eta nasaia da. Fatxadaz asten da idazten, sarrera eginez, eta idazti barruan be gaiari lotuta edo beragaz zerikusia dauken gaiak be aipatuz edo erabilliz. Gauza bakotxa presa eta estura barik bere lekuan jarten dauala. Pentsakera eta idazkera zuzen-laua, bira ta biurketa bakoa.

Idazkeraren aberastasunik andiena bearbada bere joskeran datza, joskeran esamolde ezbardñak erabiltean. Baiña or be larkeririk ez dozu idoroko. Iztegia be ugaria, baiña gauzak bear

KULTURA

LINO AKESOLO

IDAZLAN GUZTIAK

Edizioaren prestatzaile:
JULEN URKIZA

Larrea - Zornotza
1989



KARMEL SORTA - 1*



diran eran esateko neurrian, izen-lagunak pillatu barik, euskera ezagueraren erakusketa egiteke.

Aipatu dogu bere ikerle-zentzuna eta egi-zaletasuna. Beraz, oiñarri bako gauzak baieztatzea edo ziurtasun gitxikoak arto segurutzat emotea iguin dau eta olakoak asarre bidean jarten dabe. Orduan zartada dialektikuakaz astintzen daki, gaiari jagokon eran eta neurrian, egieza edo gangarkeria erakutsiz.

Prosa-adibide bat

Esandakoa adibide bitartez erakusteko, *Diasporako euskal-idazleak* idazkia artuko dogu (Karmel, 1988-3, 48-54 or.) Sei orrialde ditu. Idazkia zabalpen-maillakoa dogu. Zati bitan banatzen da: leenengoak gizaldietan atzerrietara joan ziran euskaldunen goraberan dagi; bigarrenak 1936-eko gudaren ondorenez erbesteratu bear izan eben euskaldun eta euskal idazleai buruz. Nik uste bigarren au dala idazkiaren elburua eta mamiña; zeatzago idatzita dago (izen konkreto geiagoz) eta zuzenago dagokio idazkiaren izenpuruari. Leenengo partea sarrera luze-samarra dala esan leike. Ona emen pentsamentuaren ibillera astitsua:

-Euskaldunik asko aspaldiko gizaldietan atzerrietara.

-Gure egunotan batzuk olakoak sasi-euskalduntzat daukez: baiña sarritan atzerria izan da euskalduntasuna itzartu dautsena.

-Atzerriak arakatzen joateko oitura antxiñakoa, errazoi askogaitik.

-Ortik ez jako Euskalerruari ezelango kalterik etorri.

-Arinkerizko berbak esaten dira atzerrian erderaz idatzi daben euskaldunak dirala-ta.

-Bertsolari baten bertsoak San Iñaziok ez ebala ezer egin gure erriagaitik eta: oneri erantzuna.

-Klaberia lapurditararen bertsoak Garibai eta Etxabe irriz aipatuz: emen be erantzuna.

Onen ostean dator esandako bigarren partea. Baiña naiko da egiturea eta idazkiaren ibillera patxadatsua ikusteko.

Zabalpen motakoa dala esan dogu. Baiña Akesoloren idazkiak beti dira jakingarriak eta zeatzak. Leenengo zatian, aipatutako gauza orokorrez ganera, zeaztasun oneek datoz: San Iñazio dala- ta bertsoak (non kanta ziran eta nok, izen barik). San Iñaziok zetako idatzi ebazan Ejerzizioak. Latiñez be orregaitik atera ebazala. Aita Otxoa Erronkarikoa, Oñateko nagusi, Bizkaian sermoigintzan. Aita Kardaberaz. Olabide, Atutxa, Egia, Basabe, Manzisidor.

Klateria'ren bertsoak. Joannes Etxeberri. Gariba'i'ren lanaren goralpena. Etxaberen *Discursos* eta onen goralpena.

Bigarren partean: Urdaneta'ren «Aurrera!» oiua. Amazortzigan- ren gizaldian Peru aldean idatziriko euskal bertsoen aipamena. Iparragirre eta Otaño.

Aita Lontzi eta Agustín Atutxa (*Mugarra Begiraria* poemaren egillea), Mokoroa (Diccionario fraseológico), *Boletín Americano de Estudios Vascos*, Txomin Jakakortajarena (Martín Fierro'ren itzultzailea), B. Larrakoetxea (Shakespeare'ren euskeratzailea), J.A. Irazusta (*Joan Iñazio*, Bizia garratza), Eizagirre'tar Joseba (*Ekaitzpear*), J.R. Zubillaga (*Lardasketan, Euskaldunak Argentinan*). Peru aldetik ibilli zan Salvatore Mitxelena, Unamunoz idaz- ten.

Venezuela'n Ibiñagabeitia (*Eman* aldizkaria), M. Ugalde (*Il- tzailleak*, eta beste antzerki bat), B. Amezaga (*Hamlet, Platero eta biok*). Perun eta San Salvador'en Orixe, eta hera eta Oiarzabal Zaitegi zuzendariagaz Guatemala'ko *Eusko Gogoan*. Eta Txina eta Formosa'ko mixiñoetan A. Yurre eta P. Etxebarria.

Guzti au 6 orrialdeko zabalpen-idazki baten.

Iñok ezin esan L. Akesolok euskeraren alde gitxi egin dauanik. Bere berbak merezi dabe, beraz itzala. Eta orra or bere meritua ez darabiltz atzerrietan erderaz egin bear izan daben euskaldunen aurka, bestera baiño: areek beste era batera zabaldu eta goraldu izan dabela euskal izena autortzen dau. Begirunez eta esker onez gogoratzen ditu. Estukeri barik, gogo-edegitasuna, bakotxaren alderdi onak haliotsuak ikusi eta autortzea daukagu emen. Ez da

datoen ugartasunez egiñiko kultura, pentsakera sendo eta gogozabaleko kultura baiño.

II. IRU TESTO

1. Polemika adibide bat.

«Bertsolari batek, ateraldi zorrotz usteko bat botatearren, ez dago txarto asmauta. Baiña bertsoaren mamiari begitu ezkerro, arinkeri utsa besterik ez da. Inñaziok ez eban bere liburua idatzi edozeiñek irakurteko, ejerzizio emoillentzat baiño, bakotxak entzuleen izkuntzan azaldu egian. Orregaitik atera eban latiiñez be, eleizgizon geiagoren eskuetan ipinteko. Eta Euskalerrriak, arrezkerro, beti izan dau Inñazioren ejerzizioak, gogo-jardunak euskeraz nok emon. Eta ori Inñazioren egunetatik eta Inñazioren eragitez, Inñaziok berak agindu eta euskaldunen artera bialduta»(...)

(Klabetriaren bertsoak):
Burlatzen naiz Garibaiez
bai halaber Etxabez,
zeñak mintzatu baitire
erderaz Euskaldunez.

«Askotan egiten dan pekatua da bat goratzearren beste bat beeratzea. Eta ori egin dau klabetria orrek. Joannes Etxeberriri, euskeraz idatzi ehalako, zor jakon autorra egiteko, ez eukan ez Garibai ez Etxabe beeratu bearrik. Garibairen lana goragarria da edonondik begituta. Berari zor deusagu antxiña bateko euskal asaera zar eta eresi eder asko galdu ez izana. Etxabek Ameriketan idatzi eban bere *Discursos* liburua euskaldunen maitez eta euskeraren omenez, batez be erdaldunak argitzeko. Ezingo dautsagu here horondate ona eta geure esker ona ukatu. Klabetriaren bertsoak on egiñez norbaitek idatzi izan dau Garibai eta Loiola larregi dala Euskalerrrian. Nik uste, tamalgarriago izan dala euskerarentzat eta Euskalerrriarentzat Klabetria asko izatea, irrizko bertso orreik baiño besterik ezagutzen ez jakon ezkerro. Loiolako santuari eta Garibairi askoz geiago zor deuto euskerak lengo eta oraingo klabetria guztiak baiño» (bertan).

Polemika apur bat, baiña arrazoiketaz eraturiko erantzunez. Eztena be ez da falta (bertsolariak gogoan diran ezker); alan be, gaiak ekarrita eta auziari dagokionez.

Bide batez, artu bei irakurleak gogoan zelako joskera malgu ezbaridiña darabillan idazleak adibide onetan, ze zuzen eta nasai datorren argitara esanbearrekoa.

2. Gaztelerazko soneto ospetsu baten itzulpena.

No me mueve, mi Dios, para quererte
el cielo que me tienes prometido;
ni me mueve el infierno tan temido
para dejar por eso de ofenderte.

Tu me mueves, Señor; muéveme el verte
clavado en esa cruz y escamecido;
muéveme el ver tu cuerpo tan herido;
muéveme tus afrentas y tu muerte.

Muéveme, al fin, tu amor, y en tal manera
que, aunque no hubiera cielo, yo te amara,
y, aunque no hubiera infierno, te temiera.

No me tienes que dar porque te quiera;
pues, aunque lo que espero no esperara,
lo mismo que te quiero te quisiera.

Enau ni, Jauna, Zu maite izateko
poz-alaitzen Zuk zerua agintzeak,
ezta geroko su amai gabeak
atzerazoten ogenak uzteko.

Zeuk maitemindu nozu, gurutzeko
zure lotsari ta oñazeak,
antxe josirik ilten ikusteak
odol ta zauriz, ni zeuregantzeko.

Maite zaitut, ta zerunik ez arren,
eneuke onik Zu maitatu gabe,
zure bildur ni, inpernurik ezta be.

Enabiltzu zure emoien pozarren,
uste ezpaneu be ordaiñik artzerik,
maite zinduket, maite gaur laintzerik.

1951ekoa dan itzulpen onek soneto neurkera bardidiña zaindu dau. Ez da emen errima berezitasunai buruz, eta abar, ezer esan bearrik. Ideia eta irudien indarra eta zintzotasuna konparaten doguz erarik laburranean.

Leenengo aapaldian «mueve» aditza «poz-alaitzen» baiño berezkoagoa da, eta «ogenak uzteko» sintagmak ez dauka «ofenderte» orren personal-kutsurik. Eta gaztelerazko olerkiak, «mueve» aditzaren inguruan jokutzen dau, eta alde orretatik badau obaria.

Baiña goazen bigarren aapaldira: «mueves» aditzaren ordez «maitemindu» daukagu, ez makalago, indartsuago eta zuzenago baiño; atzetik datozan guztiak (gurutzeko lotsari ta oñazeak...)

«maitemindu» dabe aditza. Oartzekoa «odol ta zauriz» esakeraren egokitasuna. Euskerazkoak «ni zeuregantzeko» gaiñerutzen dau; gazteleraz inplizitua dana agirian jarri, eta «Zeuk maitemindu» esaldiagaz asi dan aapaldia «ni zeuregantzeko» ideagaz amaitzen da; bitartean, kurutzeko oiñazeak.

Irugarren aapaldian dagoz soluziobiderik trinkoenak: «zerurik ez arren» eta «zure bildur ni, inpernurik ezta be».

Laugarren aapaldiko leenengo bertsoa ohea da gazteleraz, «porque te *quiera*» «enabiltzu» baiño esanaitsuago data. Baiña azkenengo bertsoa (ederto gazteleraz be) indartsuagoa dogu euskeraz, «maite» birritan esanez.

Azkenengo aapaldian euskeraz ez dau itzultzen gaztelerazko «pues», eta olerki guztia dala trinkoagoa, euskeraz, esan leike.

3. Espetxe aldiko olerki argitaratu bakoa

Ortzean zear zabiltzen usoak,
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari
erbestetuaren maitasun-agurraren geznari!

Etsaiak erasota
ara non dan lur jota,
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu baltzetan,
maitezko egoetan
zuganaiño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri:
zeu, aberri!

Carmona'ko espetxean, 1939-40 idatzia. Giltzapean lagun ebezan abadeetariko bat aria zalea ei zan. Batez be Toselli'ren

Serenata abestuten eban sarri, frantzesezko berbakaz. Akesolo'k, euskeraz kanta egian, olerki au sortu eutson, doiñuak eskatzen dauan neurkeran. Ez dau jatorrizko testoa itzultzen, guztiz ideia poetiku barria sortu baiño.

Asikerako irudia espetxe ganean biraka eta ormetan sartu-urten ebiltzan belatz txikiak (edo antzekoak) ikustetik otu jakon. Olerkian baiña mezulari sinbolo diran usoak jarri ditu.

Olerkia zuzena eta bakuna dogu. Leenengo lau bertsoak «maitasun-agurra» iragarten dabe. Beingoan, bigarren aapaldian, erriaren ondarena baiño ez da ikusten. Beraz, usorik ez, baiña gogoa «maitezko egoetan» «erri gaixoagana» doa. Bera da erbestetu eta espetxeratuen gozagarri, euren zoritxararen aztugarri.

Ain olerki bakunean «ortzean» eta «geznari» dira itz bakanak.

Kontraste eraginkorra eratzen dabe iru izen-lagunok: «erri gaixoa», «ordu baltzetan», «maitezko egoetan». Ez da or errekursorik pillatzen. Baiña edukian be neurritsua dogu: ez da agiri larregizko sentipenik, esaterako, etsaien kontrako oiñu eta deadarrik. Aipatu bakarrik egiten da etsaia, gogoa emiari lotuta dagoala.

Zuzentasun eta neurritasunaren ondoan, olerkiaren idealismoa oar azo bear dogu. Orretan belaunaldi aren idealismoaren lekuko agertzen jaku. «Ordu baltzak» eta «zorigaitza» or dira, baiña urrin espetxeratuen begi-biotzak erriagan josita dagoz. Bere ondamenak laztanago biurtzen dau, eta orrela da ain zuzen euren «zorigaitzaren azkarri».

Luis Arostegi